

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3877

*EBAZPENA, 2021eko ekainaren 2koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partzialari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.*

### AURREKARIAK

2021eko apirilaren 12an, Arrasateko Udalak Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partzialari buruzko (aurrerantzean, Plana) ingurumen-txosten estrategikoa egiteko eskaera aurkeztu zion ingurumen-organoari, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera. Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu zituen, hala nola Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan xedatutako edukia zuena.

21/2013 Legearen 30. artikulua aplikatuta, 2021eko apirilaren 26an Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien administrazio publiko ukituei eta interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egoztat jotzen zituen oharak egin ahal izateko.

Legezko erantzun-epea amaitu, eta espedientean jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, lege horren helburua da ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea; horrela, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzeko helburuarekin.

Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partziala abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikuluan jasotako kasuen artean sartzen da; hor ezartzen da zer plan eta programak pasatu behar duen ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua, honako hauek zehazteko: ingurumen-eragin adierazgarririk ez duela –ingurumen-txosten estrategikoaren arabera– edo ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar dela, ingurumenean eragin adierazgarria izan dezakeelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikulutik 32. artikulura bitartean dago araututa, V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Planaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera dela, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du Ingurumen

Administrazioaren Zuzendaritzak (eskumena duen organoa da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera). Txosten horretan, Planak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, ondorioz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen ala ez, edota, bestela, zer baldintza ezarri behar diren Plana garatzeko eta ingurumena behar bezala babesteko.

Hauek guztiak aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partzialaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatzea. Hona hemen txostenaren edukia:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

«16-Uruburu» sektorearen Plan Partzialak sektore horren antolamendu xehatua zehaztea du helburu, Arrasateko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (aurrerantzean, HAPO) zehazten denarekin bat etorritik. Arrasateko HAPO 2016ko martxoaren 22ko osoko bilkuran onartu zen behin betiko, eta 2016ko maiatzaren 31ko GAO-n argitaratu zen (102. zk.). 16-Uruburu sektorea bizitegi-erabilerako lurzoru urbanizagarri gisa jasota dago HAPON, eta 41.839 m<sup>2</sup>-ko azalera dauka.

Horrela, Plan Partzialean proposatutako antolamenduaren irizpideek eta helburuek honako xede hau dute: sektorean bizitegi-garapen berri bat antolatzea, bertan etxebizitzak egin ahal izateko.

Zehazki, Planak altuerako bizitegi-garapena sustatzen du, eraikuntza irekiko bizitegi tipologia-koa, eta 300 etxebizitza berri hartzen ditu. Bizitegi-programa hau barruko bi bide sortu berritan zehar garatzen da.

Planak 35.000 m<sup>2</sup>(t)-ko eraikigarritasuna garatzen du, eta horietatik, 30.000 m<sup>2</sup>(t) etxebizitzei dagozkie. Gainerako 5.000 m<sup>2</sup>(t)-ak hezkuntzako ekipamendu publikora bideratu dira.

Ekialdean eremuarekin muga egiten duen bidetik, barruko bi bide berri proiektatu dira, aurreikusitako eraikinetara sartu ahal izateko; amaierako zatian, biribilgune txiki bat jarriko da ibilgailuek bira egin ahal izateko eta, hala, antolatu beharreko eremua konfiguratzeko. Bide-komunikazioetako sarea aipatutako bide horien inguruan sortuko diren espaloiekin eta aparkalekuekin osatuko da.

Beheko bidea Anboto kaleko goiko etxebizitzaren atzealdearekin muga egiten duen eremuaren behealdean dago; horixe izango da eremuan proiektatu diren lehen bost etxebizitza blokeetarako sarbidea, eta zabalgunek bat eratuko da, haurrentzako jolasak barne hartuko dituen parke batekin. Gainera, beheko bidearekiko paraleloan, bidegorria ezarri da Gernika oinezkoentzako zumardiaren eta Gesalibar auzoaren arteko luzapen-tarte gisa; sektorearen beheko kotatik haren mendebaldeko muturrera iristen da.

Goiko bideak gainerako eraikinetara iristeko aukera emango du; hasieran, lurzati bat gordetzen da ekipamendu publikorako, Erguin Eskola handitzeko, HAPON jasotako premisa betetz. Bigarren zatian, berriz, bizitegi blokeak antolatu dira, bi aldeetan.

Hutsik dauden hiri-eremuei dagokienez, eremuaren erdialdean berdegune bat antolatu da, erai-kiko diren bi mailak elkarrekin lotzen dituena. Berdegune horrek eremuaren beheko bidea (Erguin auzoko goiko etxebizitzekin muga egiten duena) eta sortuko den goiko bidea konektatuko ditu. Gune horretan, bi geldialdiko igogailu bat proiektatu da, Anboto kalea eta proiektatu diren bi plataformak modu irisgarrian konektatzeko. Eremuaren iparraldeko mugan lur-zerrenda berde bat dago, eremua urbanizagarriak ez diren nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko kategoriarekin sailkatutako beste lursail batzuekin mugatzeko eta trantsizio gisa.

B) Planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikulua erekin bat etorritik, lege horren V. eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira, zehazteko ea Plan Partzialak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki honako hauek kontuan hartuta:

a) Planak zenbateraino ezartzen duen proiektuetarako esparrua: aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Plan Partzialak ez dauka baldintzatzailerik, besteak beste, kokapen, ezaugarri, neurri edo funtzionamenduari dagokionez, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legeetan zerrendatutako kategoriaren batekoak diren proiektuak etorkizunean baimentzeko.

b) Planak zenbateraino eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, bai eta hierarquizatuta dauden ere: Plan Partziala bizitegirako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako 41.839 m<sup>2</sup>-ko lurzati bat da, eta etxebizitzak eta hezkuntzako ekipamendua ezartzeko erabiliko da. Planaren ezaugarriak kontuan hartuta, ez du ingurumen-eragin nabarmenik izango beste plan edo programa batzuetan. Ez da aurkitu plangintza nagusiarekiko bateraezintasunik.

c) Plana egokia ote den ingurumen-arloan garapen jasagarria sustatzeko kontuan hartu behar diren alderdiak osatzeko: Plana egokia da garapen jasagarria sustatzeko irizpideak barnean hartzeko. Udalerriko hirigunearekin muga egiten du, eta indarreko plangintzan urbanizagarri gisa sailkatuta dagoen lurzoru baten okupazioa dakar. Hirigunetik gertu dagoenez, proposatu diren oinezkoentzako bideak eta igogailuak motorrik gabeko mugikortasuna erraztuko dute. Eraikin berrien eraikuntzak nabarmen lagunduko du energia aurreztera eta energia-efizientzia lortzera bideratutako jardunbideak erabiltzen.

d) Planari loturiko ingurumen-arazo adierazgarriak: ez da hauteman Planaren ondoriozko ingurumen-arazo adierazgarriak, betiere, besteak beste, segurtasun eta osasun, ingurumen, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura akustikoaren alorrean indarrean dagoen araudia betez gauzatzeko badira ukitutako eremuarekin lotutako esku-hartzeak eta jarduerak.

e) Era berean, Plana egokitzat jotzen da Europako nahiz Espainiako ingurumen-arloko legedia txertatzeko.

2.– Ondorioen eta eragina pairatu lezakeen eremuaren ezaugarriak:

Plan Partzialaren esku-hartze eremua, 16-Uruburu sektorea, landa-izaerako lurzoru urbanizagarri bat da. Arrasateko hirigunearen ipar-mendebaldean dago, Erguin auzoaren eta Garaiako landa-eremuaren artean, eta 41.839 m<sup>2</sup>-ko azalera du guztira.

Eremuan dagoen landaretzari dagokionez, eremuaren ipar-mendebaldean baso-plantazio bat dago (*Pinus radiata*), baratzeak eta fruta-arbolak erdialde-ekialdean, eta belardiak eta labore atlantikoak ekialdean. Ez da identifikatu Batasunaren intereseko habitatik edo mehatxatutako flora-espezierik.

Gertuen dagoen ur-ibilgua Arriaran ibaia da, baina eremuaren mendebaldeko mugatik 100 metro baino gehiagora igarotzen da, eta Aramaio ibaian isurtzen ditu bere urak, eremutik 300 metro ingurura, hegoaldean.

Eremuan ez dago kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituen edo izan dituen kokalekurik; dena den, hegoaldeko muga industria-lur bat dago inbentariatuta (kodea: 20055-00064).

Ez da detektatu ingurumen-arloko beste baldintzatzaille esanguratsurik: ez du loturarik inongo naturagune babesturekin, natura-intereseko gainerako eremuekin edo EAEko korridore ekologikoen sareko elementuekin. Ez dago interes geologikoko tokirik. Era berean, ez dago kultura-ondareko elementu kalifikatu edo inbentariaturik. Eremuak ez du uholde-arriskurik, eta akuiferoak kutsatzeko zaugarritasun ertaineko gune batean dago kokatuta.

Azterketa akustikoaren arabera, egun nahiz etorkizunean, hau da, hemendik 20 urtera, eta aztertutako hiru aldietan (goizean arratsaldean eta gauean), jardun-eremuaren zarata-mailak txikiagoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak baino.

Ingurumen-inpaktu esanguratsuenak eraikuntza-fasean aurreikusten dira, eraikin berriak eraikitze eta urbanizatzeko obren eraginez. Izan ere, obrek honako ondorio hauek izango dituzte: lurzorua okupatzea; landaretza moztu eta sastrakak garbitzea; lur-mugimenduak eta soberakinak; hondakinak; makinaren joan-etorriak; istripuzko isuriek lurzoruei eragindako kalteak; herritarrei eragozpenak sortuko zaizkie emisio atmosferikoen eta akustikoen eraginez; eta abar. Hori guztia hiri-periferiako eremu batean.

Plan Partzialaren ondorioz, landa-izaerako lurzorua okupazioa handituko da eta bertan dagoen landaretza kenduko da (baso-plantazioa, baratze eta fruta-arbolen eremua, eta belardiak).

Ingurumen-dokumentu estrategikoarekin bat etorritik, lurren balantzea neutroa izatea espero da; horrenbestez, eremutik kanpo bota beharreko soberakin esanguratsurik ez izatea eta kanpotik materialak maileguan ekartzeko premia handirik ez izatea espero da. Beraz, lur-mugimenduek eragindako kaltea garrantzi txikikoa dela esan daiteke.

Bestalde, lanak egiten diren aldiaren kontuan izan behar da, eremuaren hegoaldeko mugatik gertu lurzoru inbentariatuko lurzati bat dagoela (kodea: 20055-00064).

Ondorioz, ingurumen-agiri estrategikoak planteatzen dituen zuzenketa- eta jasangarritasun-neurriak eta aurrerago zehazten diren prebentzio-, babes- eta zuzenketa-neurriak aplikatuta, ez da espero jarduketa horiek ingurumenean ondorio esanguratsurik izango dutenik, Ingurumen-ebaluzioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean aurreikusitakoari jarraikiz.

3.– Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, Planak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izan ez dezan eta Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partzialari ingurumen-ebaluzio estrategiko arrunta egin beharrik egon ez dadin, betiere ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzen badira Planean.

Neurri babesle eta zuzentzaileak indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira, ingurumen-txosten estrategikoa formulatzen duen ebazpen honetan adierazitakoarekin bat, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, ingurumen-dokumentu estrategikoan eta eremua antolatuko duten planean jasotakoarekin bat etorritik.

– Paisaia-integrazioarekin lotutako neurriak:

Landare- eta lore-estaldura lehengoratzeko lanetan, biodibertsitate autoktonoa sustatzeko jarduerak bultzatuko dira, eta jasangarritasun-irizpideak lehenetsiko dira jarduera horietan, horrela espezie inbaditzaileak sartzeko arriskua murrizteko. Horretarako, lhobek argitaratutako «Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua» argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak kontuan hartuko dira. Gidan aukerak ematen dira, birlandatu beharreko ingurunearen arabera, eta ahalmen inbaditzailea duten espezie aloktonoak identifikatzen ditu, landaketa horietan ez erabiltzeko.

Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*. Ahalmen inbaditzaileko espezie aloktonoak kentzeko eta lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko behar diren neurriak hartuko dira; landareztatze-lanetan eta urbanizazioko lorategi-lanetan erabiliko diren mailegu-lurren eta landare-lurren jatorria eta osaera kontrolatu beharko dira.

– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei buruzko neurriak:

Eremuan ez dago kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak dituen edo izan dituen kokalekurik; dena den, hegoaldeko muga industria-lur bat dago inbentariatuta (kodea: 20055-00064).

A priori, Plan Partzialak ez dio kalterik eragiten lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak hartu edo hartzen dituzten lurzoruen inbentarioan dagoen lurzatiari. Nolanahi ere, obretan zehar lur-mugimenduek kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen lurzatiari eragiten badiote, lurzoruen kalitatearen deklarazioaren prozedura has dadila eskatuko da, 4/2015 Legearen 23.1.d) artikuluan zehazten den moduan (4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa); eta, hala badagokio, kasu bakoitzean ezarritakoa izango da kontuan, betiere ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezartzen den lurzoruen kalitatearen deklarazioaren prozedurari jarraikiz.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Arrasateko Udalari eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetari jakinarazi beharko zaizkie lur susmagarriak detektatzearen ondoriozko kutsadura-arrasto guztiak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikulua betetzeko.

– Beste prebentzio- eta zuzenketa-neurri batzuk:

Bestalde, urbanizazio- eta eraikuntza-proiektuak egikartzeko prozesuan aplikatuko diren neurriak loturik egongo dira obretako jardunbide egokien eskuliburuarekin, lurren eta soberakinen kudeaketarekin, hondakinen sorkuntza eta kudeaketarekin, induskatutako lurzoruen kontrolarekin, eta urak, airearen kalitatea eta kalitate akustikoa babestearekin. Besteak beste, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek bete beharko dira Planetik eratorritako obrak gauzatzeko:

– Obrako langileek erabiltzeko jardunbide egokien eskuliburua. Gai hauekin zerikusia duten alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, uretara eginiko isuriak saihestea, ahalik eta hauts eta zarata gutxien sortzea, hondakinak kudeatzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea, etab. Behar diren neurriak hartu beharko dira, bestalde, jardueren garapenak eraginik izan ez dezan lurzoruan eta ingurunean ibilgutan.

– Obrak, bai eta lurzoruen okupazioa dakarten gainerako eragiketa osagarriak ere, proiektua egikartzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatu beharko dira. Kontratatuen instalazio-eremuak, makinak gordetzeko guneak, lan-txabolak, obrako materialak eta landare-lurra eta

hondakinak aldi batean pilatzeko guneak proiektatzerakoan, ingurumenari ahalik eta gutxien eragiteko irizpidea izango da kontuan (gune iragazgaiztuetan).

– Lurzoruak eta urak babesteari dagokionez, prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko dira obra-faserako, istripuzko isurien eragina saihesteko, bereziki makinaren mantentze-lanetan (material xurgatzaileak erabiltzea, isuriak kaltetutako lurra kentzea eta kudeatzea, etab.).

– Hondakinak sortzea eta kudeatzea: Hondakin eta zoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak araututako moduan eta aplikatzekoak diren berariazko araudiek agindutako moduan kudeatuko dira obretan sortutako hondakinak, hondeaketetatik eratorriak barne.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinak Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Hala badagokio, eraikuntza-lanetan sortutako indusketa-soberakinak baimendutako soberakin-biltegira eramango dira, eta indarreko legerian ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Industriar Erabilitako Olioaren Kudeaketa Arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari jarraituz kudeatu beharko dira sortutako olio erabiliak.

– Gainera, obrako hondakinak birziklatzeari dagokionez, eraikuntzan eta eraikingintzan baliabideak beren bizi-ziklo osoan zehar modu efizienteago batean erabiliko direla sustatzeko –bereziki obrak amaitutakoan hondakinak aprobetxatzea–, jarraian aipatzen direnak sustatu beharko dira, honako hurrenkera honetan: eraikuntza- eta eraispen-hondakinen prebentzioa, berrerabiltzea, birziklatzea eta beste balorizazio modu batzuk, eta, hala badagokio, ezabatze-jardueren trataera egokia. Horretarako, bermatu egin beharko da obra-proiektuaren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak gai honi buruzko arauen arabera sortu eta kudeatzen direla.

– Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa gorabehera, obrak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, lanak eten egingo dira badaezpada, eta berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamenduari; hark erabakiko du zer neurri hartu.

– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonakatzeko akustiko, kalitate-helburu eta emisio akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinaren emisio akustikoei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, egokitu beharko dira, hala badagokio, Kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten emisio akustikoak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Dekretuak aldatu du) eta arau osagarrietan ezarritakora. Obrak egunez egingo dira.

– Kamioiek obran sartzeko edo obratik irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi mantendu beharko dira, presiozko ura, erratz-makinak edo, hala badagokio, dekantazio-putzura konektatutako gurgilak garbitzeko gailuak erabiliz.

– Eraikingintza eta eraikuntza jasangarrienerako behar diren ezaugarriak dagokienez, «EAEko etxebizitzaren eraikingintza jasangarriaren gida» argitalpeneko gomendioak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpena eta efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko. Neurri horiek, gutxienez, honako alderdi hauetan eragin beharko dute:

– Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.

– Energia. Iturri berriztaezinen bidez sortutako energiaren ekoizpena eta/edo energiaren kontsumoa murriztea.

- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa gutxitzea.
- Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Barne-kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.– Zehaztea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, bai eta sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partzialak ondorio kaltegarri esanguratsurik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia Arrasateko Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko honek indarra galduko du eta berezko dituen efektuak sortzeari utziko dio, baldin eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko epean, Arrasateko (Gipuzkoa) «16-Uruburu» sektorearen Plan Partziala onartzen ez bada. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 2a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,  
JAVIER AGIRRE ORCAJO.